

2018ko JARDUEREN TXOSTENA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural

AURKIBIDEA

1. SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZENTZIAZIOA

Nazioarteko egunak

- ♦ Arraza diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna. Martxoak 21. Agenda
- ♦ Gizaliburutegia
- ♦ Ijito Herriaren nazioarteko eguna. Apirilak 8
- ♦ Haurren egun unibertsala. Azaroak 20
- ♦ Migratzaileen Nazioarteko Eguna, abenduak 18

Formakuntza

ZURRUMURRUEN AURKAKO FORMAZIOA

- ♦ Udal langileei zuzenduta
- ♦ Udaltzaingoari zuzenduta
- ♦ Herritarrei zuzenduta
- ♦ Zurrumurruen aurkako Gazteen Topaketak

2. BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

- ♦ Sukaldanitzak
- ♦ Kultura arteko bizikidetza ikastetxean "Ongi etorri eskolara"
- ♦ Emakumeen gune interkulturala
- ♦ "Empalabramiento Tailerra "

3. SAREETAN PARTE HARTZEA

- Kultur aniztasuneko eragileen sarea.
- Elkarbizi sarea/Foru Aldundia.
- "ZAS" zurrumurruen aurkako sarea.
- RECI Kulturen arteko hirien sarea.
- ICC Intercultural Citis
- ICCren Bisita Donostiara

4. DIRU LAGUNTZAK

- ♦ Lehiaketa bidezko Diru-laguntzak
- ♦ Zuzenezko Diru-laguntzak

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Arraza diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna

Martxoak 21

Nazio Batuen Biltzar Nagusiak Arraza Diskriminazioa ezabatzeko Nazioarteko Egun izendatu zuen martxoaren 21a, 1960an Hegoafrikako Sharpeville udalerrian gertatu zen sarraskiaren oroimenean.

Kultur Aniztasuneko bulegoak hainbat jarduera antolatzen ditu beste eragile eta erakunde batzuekin batera, diskriminazioaren kontrako borrokarekin bat egiteko, eta Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta egitarau barateratu bat osatzen dugu. Duñike Agirrezabalaga zinegotziak integrazioaren eta kulturartekotasunaren alde egiteko antolatu diren jardueren berri eman zuen prentsa aurreko batean Udaletxeko Tokiko gobernuan.

Aurten, martxoaren 19tik 25era bitartean hainbat ekintza burutu dira: proiektzioak, muralak, solasaldiak... Horretaz gain, igandean arrazakeriaren aurkako martxa bat egin zen. Beste aldetik departamentuak antolatu du, Giza Liburutegiaren saio berezi bat, San Telmoko liburutegian. Hau dena azaltzeko Prentsa aurreko bat egin zen, eta bertan, Donostiako udalak, bat egin zuen Ijitoen Idazkaritza Fundazioak "Partir de **Cero**" sentsibilizazio kanpainarekin, film labur hunkigarri baten bidez, bertan ikusteko aukera egon zen.

www.partirdecero.org / web gunean ikus daiteke.,



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Giza Liburutegia 2018:

Elkarrizketa gurutzatuak kulturartekotasuna bultzatzeko

Martxoaren 21ean, Xenofobia eta Arrazakeriaren Kontrako Nazioarteko egunean, Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren Bulegoak eta + 55 hainbat elkarterekin batera, Giza Liburutegi ekimena antolatu zuten San Telmo Liburutegian. Kultura desberdinekin lotutako bost pertsona liburu bihurtu ziren, haien istoriok eta bizipenak partekatzeko.

Aurten ere San Telmo museoan antolatu da, eta aurten bost gunetan oinarritutako dinamika batean garatu da. Gune bakoitzaren ardura, jatorri eta kultura anitzeko elkarte batek, parte hartu du, eta hizlariak kultura jakin bati buruzko istorio edo bizipenak azaldu dizkiete parte hartzaileei.

Honako talde eta elkarteek hartu dute parte aurtengo edizioan: Atisha Tibetar Kultur Elkarte, Asoc. Inter. 5 estrellas, Jatorkin elkarte eta "Ongi Etorri Eskolara".

Ekimenean, hogeita hamabost lagun parte hartu dute eta modu onean baloratu dute jarduera.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Ijito Herriaren nazioarteko eguna
Apirilak 8



1971ko apirilaren 8an, Herri Romani/Ijitoaren Munduko lehen kongresua izan zen. Goi mailako bilkura horren ondorioz, bandera eta ereserkia sortu ziren, nazien biktima izandako ijitoen omenez. Donostiako Udalak, elkarlanean Ijitoen elkarteekin, giza eskubideak babestu eta diskriminaziok mota guztiak gaitzesteko konpromisoaz bat, urtero, Herri Ijitoaren Eguna ospatzeko ekitaldi batzuk antolatzen dituzte.

Aurten oroitzapen egun hori jaiegun batekin gertatu denez gero (igandea) apirilaren 9ra alduzu zen

Goizeko 11:00etan, Udaletxeko Udalbatza aretoan, harrera ekitaldi bat egon zen, ongi etorri egiteko honako elkarte hauei: Agifugi, Cáritas, Kamelamos Adiquerar, Romi bidean eta Secreariado gitano fundazioari. Hasieran agurraren ondoren, oroitzapen manifestu bat irakurri zuen Samara Hernández Jimeénezek (euskaraz) eta Juncal Dualek (gaztelaniaz) Banderak, elkarri trukatu zuten (Donostiako hirikoa eta ijito herriarena), bukatzeko, Ruthek, Gelem Gelem Ijitoen ereserkia kantatu zuen.

Udalbatza Aretoan ekitaldi horiek amaitu ondoren, Ibaiaren Zeremonia, Kaian, ospatu zuten , arbasoekiko omenaldi gisa "nazien holokaustoan" izandako heriotzak gogora ekartzeko.

Ijito bandera Udaletxeko balkoian, larunbatetik ezarrita egon zen eta Dbus autobusetan ere ikusi ahal izan zen egun osoan.

Amaitzeko,Udalbatza Aretoan, hamaiketako bat egon zen.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Haurren Egun Unibertsala Azaroak 20

Donostiako Kultur aniztasunaren Bulegoak, Mestiza elkartearekin elkarlanean "Haurren Egun Unibertsalaren Festa" antolatu du, azaroaren 20an, Donostiako Pleno Aretoan, ekitaldia, 4/8 urteko hurrei zuzenduta izan da.

Ekitaldiaren ardatzak, Kulturaren arteko harremanak eta bizikidetza bultzatzea izan da eta Aniztasuna, balorean jartzea.

Parte-hartzaileak;

Monica Gracia aurkezle moduan aritu da.
Ipui Kontalaria euskaraz, Anna Izbieta Agopsowicz " Igela eta arrotza" ipuia kontatu du.
Ipui Kontalaria gazteleraz, Ana Molina "Cielo de Agua" Ipuia kontatu du.
Jokoak eta abestiak hiru hizkuntzetan antolatu dituzte.

Aniztasun Muralaren sormena, hurrek osatu dute,
Mónica Luna Arriola, gidaripean.
Festa alaitzeko " Musika Naiz" entzuteko eta dantzan aritzeko aukera izan dute, Tómbola eta "Sweet Lulu" gozotegiko goxoak dastatzeko.


Donostiako Udaletxeko, Pleno Aretoa bete egin da.
Inguratu direnak, Jokuak eta bizikidetza elkar lotuz arratsaldea, giro ederrean igaro dute.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Haurren Egun Unibertsala

Azaroak 20



Azaroaren 20an Haurren Egun Unibertsala dela eta, Donostiako udalak, Kultur aniztasunaren atalen bitartez, ikastetxeetan ekimen bat antolatu du. Honen bitartez giza eskubideen aldeko hausnarketa eta Haurren eskubideen aldeko Manifestua ezagutzera eman nahi izan da.

“Dar- Dar gizarte ekimenezko kooperatibak”, Nerabeei zuzendutako proiektu bat, eratu dute. Bakarrizketa antzeztuaren eta ikus entzunezkoen bidez. “ Belea” izeneko ikuskizunaren emanaldia antzeztu da, eta bertan gerrateek sorturiko errefuxiatuen drama, holocaustoa, pobreziak eragindako migraizoak eta abar...landu dira.

Programa hau, Ekintza ikastola, Altzako Ikastetxea eta Lauaizeta ikastetxetako, DBHko lehenengo zikloko nerabeei zuzendua izan da. Bertan 18 saio egin dira, eta 450 lagun inguru parte hartu dute.

Ikastetxeen aldetik jaso ditugun balorazioak, oso positiboak izan dira.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Migratzaileen Nazioarteko Eguna, abenduak 18

Eneko Goiak, Donostiako Alkateak, Europako Batzordearen Intercultural Cities programako beste alkate batzuekin batera, parte hartu du gizarte inklusiboagoren aldeko on line bidezko kanpainan. Asteartean, abenduaren 18an, ospatu zen Migratzaileen Nazioarteko Eguna

Intercultural Cities mundu osoko 130 hiri baino gehiago batzen dituen sarea da. Kultur arteko lente baten bidezko azterketa egitean, laguntza ematen du eta baita aniztasuna era positiboan kudeatzera, eta aniztasunaren abantaila errealitate egitera laguntzen duten kultur arteko Estrategia integralak garatzen ditu.

Programak integrazio interkulturala sustatzen du, tokiko mailan giza eskubideak babestera laguntzeko, eta Hiriei laguntzen die berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzera, kulturen arteko topaketa eta erakundeak Irekiak eta inklusiboak izatera ere laguntzen du.



Eneko GOIA
Mayor of San Sebastián

This year around 15.000 students from 28 schools in San Sebastian participated in the Agenda 21 School programme, discovering cultural diversity and undertaking the commitment to respect cultures and people of other origins, and to promote peaceful coexistence.

International Migrants Day 18 December 2018

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

“Zurrumurruen aurkako prestakuntza”

Donostiako hiritarren arreta gaiarekin lotura duten Udaleko langileei zuzenduta dago.

Urriak 23, 30 eta azaroaren 6an

Ordutegia: 10.00etatik

Zurrumurruen Aurkako Estrategia, etorkin, errefuxiatu eta oro har, kultur aniztasunaren aurkako estereotipo negatibo edota aurreiritziek sortutako ondorioak indargabetzeko dinamika da. Kultur Aniztasunaren Bulegoak, SOS arrazakeria elkartearekin elkarlanean, “Zurrumurruen aurkako” prestakuntza saio batzuk antolatu dituzte, Donostiako hiritarren arreta gaiarekin lotura duen Udaleko langileei zuzendua.

Formakuntza saioak Aieteko Jauregian eman dira, hiru saiotan banatuta: Urriaren 23, 30ean eta azaroaren 6an

Ikastaroaren helburuak hauek izan dira:

Migratzaileei buruzko zurrumurruak eta estereotipoak identifikatu eta aztertu. Tresnak eta ezagutzak lortu, zurrumuru hauei, aurre egiteko.

Formazioa eman duten pertsonak hauexek izan dira.

- .- Xabier Aierdi (soziologoa)
 - .- Agustin Unzurrunzaga (Gipuzkoako SOSeko kidea)
 - .- Raquel Moreno (de Xarxa AntiRumors Barcelona).
- Formakuntza honetan, 20 langile parte hartu dute.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

“Zurrumurruen aurkako formazio saioak”

Donostiako Udaltzaingoa zuzendutako formakuntza

Azaroak 5 (bost orduko saioa)

Formatzailea Raquel Moreno izan da (soziologa eta parte-hartzearen gizarte espezialista)

Gaia; Zurrumurruen aurkako saioa

Morlanseko eraikuntza izan da, 5 orduko ikastaroa eta bertan 18 lagun parte hartu dute

Herritarrei zuzenduta

Abenduak 11-13-17

Aieteko Bakearen etxean 17.00-20.00

Formatzaileak eta gaiak:

1.-Xabier Aierdi.- Soziologoa eta Zientzia Politikoetan lizentziaduna

Gaia.- Aurreiritziak, estereotipoak, zurrumurruak

2.-Norma Vazquez.- Psikologian lizentziaduna. Helduen Hezkuntza eta Herri Sustapenaren diplomaduna

Gaia.- Genero estereotipoak ezagutzea eta aztertzea zeintzuk eragiten duten nagusiki emakume etorkinengan eta zurrumurru faltsuak elikatzen

3.-Asier Gallastegi.- (Aholkulari sistemikoa, coach, Gizarte hezitzailea)

Gaia.- Zurrumurruen aurkako elkarrizketak garatzeko tresnak. Nola kudeatu eta erantzun eman eguneroko bizitzan zurrumurru mezuen hedatzeari

Ondoko formazio egitasmoak besteak beste, zurrumurruen aurka lanean arituko den pertsona ezberdinez osatutako Donostiako agenteen sarea sortzea da.

ZURRUMURRUEN AURKAKO FORMAZIO SAIOAK
SESIONES DE FORMACIÓN ANTIRUMORES



**ABENDUAK
11-13-17
DICIEMBRE**

Aieteko Bakearen Etxean
Casa de la Paz de Aiete
17:00 - 20:00

Formazio saioetan parte hartu nahi baduzu idatzi
mezu bat kulturantzakuna@donostia.eus helbidera
edo deitu **943 48 14 98** telefono zenbakira

Si te interesa participar en las sesiones de formación
envíanos un e-mail a kulturantzakuna@donostia.eus
o llámanos al teléfono **943 48 14 98**

Antolatzailea / Organiza:            

Laguntzaileak / Colaboran:      

Kultur Antzerketa Donostia
@DSSAntzerketa

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Zurrumuruen Aurkako III Gazteen topaketa

Aurreko bi txandetan, Gazteen Topaketak, Sabedelen eta Getxon izan dira.
Hirugarrena berriz Iruñan- Irailak 6-9
Adinak- 13-17 bitartekoentzat izan dira

III Topaketa honen helburuak honakoak dira:

- Jatorrizko udalerrietan zurrumuruen aurka ariko diren gazteen sare parte hartzaile eta aktibo bat sortzea.
- Topaketarako eta esperientziak trukatzeko espazioak sustatzea, etorkinen aurkako zurrumurruak errotik desagerrarazteko.
- Zurrumurruen Aurkako Estrategia ikusgarriago egitea, bai gure lurraldean, baita lurraldetik kanpo ere.

Donostiako Udaleko, Donostia Gazteriak eta Kultur Aniztasun sailek hain zuzen ere, ekimen honekin bat egitea erabaki dute
Oraingo Topaketa honetan, ez dute Donostiako gazterik parte hartu
Bertara bai inguratu dira , Gazte eta Kultur Aniztasunaren departamentuko bi teknikari.



BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Sukaldanitzak ekainak 9

Gure kulturaren parte diren beste kultura batzuetako gastronomia hurbiltzea xede du "Sukaldanitzak" ekimena. Gastronomiaren bidez kulturek elkar ezagutzea sustatzen du, hala, hainbat jatorrizko pertsonak elkar topatzeko guneak sortuz. Aurten, Donostiako, ekainaren 9an, zazpi Elkarte Gastronomikoetan, tailerrak eman ziren eta bakoitzean, tokian tokiko ohiko errezetak prestatu ziren, toki bakoitzeko sukaldari baten eskutik. Ondoren bertara inguratu zirenak, (aldez aurretik, izena eman zuten hiritarrak, elkarteetako bazkideak..) aukera izan zuten bazkarian parte hartzeko.

Aurten eman diren tailerrak hauexek izan dira:

Kolonbiako gastronomia	-----	Txirain elkarteetan / Asoc. Esperanza Latina
Ukraniako gastronomia	-----	Kañoyetan elkarteetan / Ucraina-Euskadi elakrtea,
Mongoliako gastronomia	-----	Centro Burgales elkarteetan/ Ongi etorri eskolara
Errumaniako gastronomia	-----	Amaikak Bat elkarteetan/ Asoc. Decebal
Gastronomia Ingeles-Perutarra-		Loiolatarra elkarteetan/ Asoc. Intercul. 5 estrellas
Tibetar gastronomia	-----	Zubi musu elkarteetan / Asoc. Tibetana Atisha
Boliviako gastronomia	-----	Casa de Galicia elkarteetan / Asoc. Mi Nuevo Potosi

Bertan parte hartu zutenak, oso giro onean pasa zuten eguna, aukera izan zuten jatorri anitzeko platerak ezagutzeko eta dastatzeko, eta mahai inguruan elkarrekin , giro onean egoteko. Ekimenean 210 pertsona inguru parte hartu zuten.



BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Kultura arteko Bizikidetza Eskola Komunitatean "Ongi etorri eskolara"

"Ongi etorri eskolara", kultur artekotasunean lantzen duen proiektu bat da. Donostiako 6 Ikastetxe, programa honetan parte hartzen ari dira.

Programa honek, gelan eta ikastetxean, kultura artekotasunaren ikuspuntua lantzen du. Eskola komunitatea, eskola osatzen duten kultura guztiak, balioztatzearen garrantziaz, sentsibilizatuz. Aldi berean, kultura guzti hauek euskarara eta euskal kulturara gertura daitezen lan eginez.

Kultura aniztasuna, bai eskolarako bai auzo edo Herrirako, abantaila gisa ikustean datza, gertutasunetik lan eginez "familia laguna programa"ren bidez.

Aurten," Familia laguna " programan, 102 Familiak parte hartu dute eta bai familia euskaldunak, bai beste herrialde batean jatorria dutenak, parte hartzeari buruz egin duten balorazioa oso positiboa izan da. Museo San Telmorekin elkarlanean ere, Programa honetan parte hartzen duten familiekin, sei bisita gidatuak antolatu dira. Kurtsoari amaiera emateko, Kultur aniztasunaren Bulegoak, ikasturtean zehar egindako lana eskertu nahi izan die, eta horretarako, ekainan, eskertza ekitaldi bat, Kutxaespazioan antolatu Zen.



Donostiako Kultur Aniztasunaren Bulegoak eta Berdintasun Sailak elkarlanean, jatorri desberdineko emakumeentzat taldean egoteko gunea eskaintzen die. Bertan, Sorburu kooperatiba, dinamitzailearen eskutik, astean behin, beraien ahaldundu prozesuan ekimenak sustatu eta koordinatzen ditu.

Asteartero, gune honetan parte hartu nahi duten jatorri anitzeko emakumeek, hitzordua daukate 16:00etatik 18:00etara.

Espazio honen helburu nagusienetako batzuk; isolamentua baztertzea, euskal gizartea ezagutzera ematea eta aisirako eta elkar ezagutzerako kulturarteko ekimenetan parte hartzea dira..


2018an; 34 saio egin dira, bertan 61 emakumeek parte hartu dute, 18 herrialde desberdinekoak.

Gai desberdinak landu dituzte (genero indarkeria, emakumeen eskubideak, errefuxiatuak, norberaren zaintza,..)

Beraien balorazioa ona izan da, saioko 7,3 lagunek parte hartu dute.

Gune honetan beste emakume batzuekin, esperientziak konpartitu dituzte.

San Telmo Museora joan dira eta "Daudenak eta ez daudenak" erakusketa, ikusi dute, Pasaian berriz "Barko museoan" egon dira.



"EMPALABRAMIENTO"

TAILERRA

Azken urteotan, hainbat jatorritatik etortzen ari dira emakumeak Donostiara. Haietako batzuek zailtasunak dituzte gaztelaniaz hitz egiteko, eta ez dute euskeraren berri. Horrek zailtasunak dakarkizkie harremanak izan eta hiriko zenbait esparrutan parte hartzeko unean.

Horra zergaitik erabaki duen Kultur Aniztasuanaren Bulegoak "Empalabramiento" proiektua eragitea. Irakaslea, Nerea del Campo da.

Programaren helburu nagusia da gaztelania ikasten duten bitartean, emakumeek beren eskubide eta ahalmenen kontzientzia indibiduala hartzea, baliabideak eskuratzea, eraginean irabaztea eta jendartearen parte izatea eskubide osoko herritar gisa eta baldintza-berdintasunean.

Aurten bi tailer antolatu dira, bat apiriletik ekainera eta bestea Urriatik abendurarte.

Tailer hau, 20 saiotan, banatu dira, bakoitza bi ordukoak. Saio hauetan 16 emakume parte hartu dute. Tailer hauetan parte hartu duten pertsonen aldetik balorazioa positiboa izan da, eta departamentuaren aldetik datorren urtean 2019an, tailerrarekin jarraitzea proposatu da.



SAREETAN PARTE HARTZEA

Kultur Aniztasuneko Agenteen Udal Sarea

Elkarriketa gunetan, elkarren berri ematen diote Kultur Aniztasunaren Bulegoak, atzeritarrei, errefuxiatuei eta kultura guztietako jendeari harrera egiteko eta gizarteratzen laguntzeko lanean diharduten udalerriko elkarteek.

Horren bidez, elkarteek zer behar dituzten jakin ahal izan dugu, eta gure atalak ere izan du aukera haiei zer programa garatzen eta sustatzen dituen ezagutarazteko.

Azaroan izandako bileran, errepasoa egin genien Udalak ikasturte barruan egindako jardueri. Bestalde, gonbit egin genien elkartei Europako Kontseiluko Intercultural Citeies (Kultura Arteko Hiriak) programako ordezkariak Donostiara egitekoa zuten bisitara. Bisita horren helburua zen hirian kulturartekotasunarekin lotuta egiten diren programak ezagutzea. Hamar elkarte hartu dute parte.

Elkarbizi Sarea / Gipuzkoako foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat bilera antolatu ditu Gipuzkoako udaletan egiten diren esperientziak ezagutarazteko asmoz.

Gure atala izan da helburu horrekin antolatu diren bileretan, eta esperientziak partekatu ditu beste udal batzuekin (Andoain, Irun, Urnieta, Zarautz, Errenteria, Donostia, Pasaia). Bilera horiek oso interesgarriak izan dira beste udal batzuetan zer egiten duten jakiteko. Bestalde, otsailean, Aldundiak jardunaldi bat antolatu zuen Elkarbizi sarearen eta Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Planaren esparruan, eta gure atalak parte hartu zuen jardunaldi hartan.

SAREETAN PARTE HARTZEA

ZAS! Zurrumurruen Aurrakako Sarea

Gizarte eragileen eta erakundearen sare bat da, gizartearen eraldatzeko estrategia bat aurrera daramana, giza eskubideen, kulturartekotasunaren eta arrazismoaren kontrako ikuspegia oinarritzat hartuta. Honela egituratua dago: idazkaritza teknikoa, lan batzordeak eta aldizkako osoko bilkurak. Erabakiak osoko bilkuran hartzen dira, sareko kideek ematen duten botoaren arabera.

Sarearen ohiko zeregina da zurrumurruen aurkako eragileak sortzea eta euskal gizartearen ohikoen diren diskurtso negatibo eta xenofoboak kontra egiteko narrazio multzo bat sortzea, baina 2018an, ohiko jardueraren horiez gain, beste hauek ere egin ditu:

- Komunikazio estrategia bat diseinatu eta garatzea.
- Herriz herriko ZAS! Hitzaldi zikloa proposatzea
- Zurrumurruen aurkako Materialen eta Jardueren Katalogoa eguneratu eta egitea.

Horrez gain, formalki eratu da ZAS!

web.www.zurrumurrurikez.eus y www.antirumores.eus

SAREETAN PARTE HARTZEA

RECI-Kulturarteko Hirien Sarea

RECI estatu mailako sarea da, Intercultural Cities programaren ekimenaz sortua. Sare honen helburuetako bat da esperientziak partekatzea eta aniztasuna kudeatzeko moduak ezagutaraztea, kulturarteko ikuspegia txertatuz. Izan ere, jatorri eta kultura askotariko pertsonen arteko ezagutza ahalbideratzea du helburu; beldurrak alde batera utzi, eta ondorioz diskriminazioa ezabatzea zergatia edozein dela ere, eta aniztasunaren balio positiboa goraipatzea.

TENERIFE.- RECI- 2018ko Apirilaren 25ean, 14. lan saioa

Besteak beste hauek izan dira landu diren gaiak:

.-Sarearen hedapena (Hiri berrien aurkezpena)

.-Eztabaida eta bilera gaiak.

.- Kultura arteko politiketan parte hartzea.

Bulegoko Teknikari batek parte hartu zuen bertan.



LOGROÑO.- RECI- Azaroaren 13 eta 14ean, 14. lan saioa

Besteak beste hauek izan dira , landu diren gaiak:

Azaroaren 13an

.- Kultura arteko herritarren testa.

.-"Printzipioetara itzultzea ".Kultura artekotasunaren indarraldia eta urgentzia, berdintasuna, Aniztasuna eta Elkarrekintza.

Arratsaldean, lan saio bat egin zen, Kaleidos sarearekin, sinergiak bilatzeko eta parte hartzeari eta kultura artekotasunari buruzko gida bat egiteko elkarrekin.

Azaroaren 14ean

.- Zurrumurruen aurkako estrategia: bere bilakaeraren ikuspegi globala eta aurrean dituen erronka nagusiak.

.- Europa Kontseiluko Zurrumurruen aurkako Eskuliburuaren aurkezpena.

Bulegoko teknikari batek parte hartu zuen bertan.

<https://www.youtube.com/watch?v=eMT1f2Elu8Q>

SAREETAN PARTE HARTZEA

ICC. Intercultural Cities

Donostia, Europako Kontseiluko Kulturen arteko hirien sare eta programako kide da 2011.urteaz geroztik, eta egun, beste 100 hirik parte hartzen dute bertan. Programa horrek hiriak laguntzen ditu haien kulturarteko estrategiak garatzen, aniztasunaren kudeaketa eta migratzaile integrazioa bideratuz.

2018. urtean zehar Donostiako Udalak, Europako Batzordearen ICC programaren, Koordinazio bilera batzuetan parte hartu du.

RIJEKA (Italia).- 2018ko irailaren 26- 27

Gaia: ICC sarean, parte hartzen duten Hirien koordinazioa bilera.
Bertan parte hartu du Kultur Aniztasuneko Teknikari batek

TENERIFE.- (España)2018ko apirilaren 26 -27

Bileran landu ziren Gaiak: gizarte inklusibotan Elkarrekin bizi:
Kultura arteko ikuspegiak nola susta dezake parte hartzea era guztietako gizarteetan?
Bertan parte hartu du, Kultur Aniztasuneko Teknikari batek.

GINEBRA.- (Suiza) 2018ko URRIAREN 19 -20ean

Bileran landu diren gaiak: "Tokiko giza eskubideak: nola saihestu diskriminazioa ikuspegi intersektionalaren bidez"
Bertara Berdintasuneko Teknikari bat joan da.

BERGEN (Noruega) Kultur aniztasunaren elkarlanean Gaztediaren departamenduarekin.

Donostia eta Norvegiako Bergen hirien artean, zurrumurruen aurkako gazteen topaketa 2018 aldebikoa antolatu da. Topaketan, 18-25 urte bitarteko 20 gaztek parte hartu dute. Bergen hiriko 10 gazte eta Donostiako beste 10 gazte.

SAREETAN PARTE HARTZEA

Kontseiluko Kultur arteko Hirien programako adituen bisita

Donostiak, Europako Kontseiluko Kultur arteko Hirien programako hiru adituen bisita jaso du Abenduaren 12 eta 13an. Donostiako alkate Eneko Goiak udal korporazioaren izenean harrera egin die. Hiru adituek Udalaren arduradun teknikoekin batera programa aurkeztu dute.

Intercultural Cities / Kulturarteko Hirien programa (ICC) 2008.urtean sortu zuten Europako Kontseiluak eta Europako Batzordeak elkarlanean.

Egun, mundu osoko 128 hiri baino gehiagok parte hartzen dute Programa honetan.

Intercultural Cities programak laguntza eskaintzen die atzerriarren inklusioaren gaineko politikak berritu nahi dituzten hiriei, baita aniztasunak eta horrek ekarri ditzakeen abantailak kudeatzeko estrategiak ere.

Komisioak, hirian, aurrera eramaten ari diren kultur aniztasunaren proiektuak (hezkuntzan, bizikidetzan, berdintasunean, fomenton eta Giza eskubideetako arloan)ezagutzeko aukera izan dute.

Alde batetik ;

Udaleko departamentu desberdinak eramaten ari dituztenak

Eta beste aldetik baita aukera izan dute ere, hiriko elkarte

Desberdinak eramaten ari direnak ezagutzeko. (Ijitoen elkarteak, SOS arrazakeria..)



DIRU-LAGUNTZAK

Kultur Aniztasuna, Elkar Ezagutza eta Aitortza

Lehiaketa bidezko diru- laguntzak

Kultur Aniztasunaren bulegoak guztira 60.000 euro banatu ditu, irabazi asmorik gabeko 26 erakunderen artean. Erakunde horiek, 30 proiektu aurkeztu dituzte, kultura aniztasunaren eta elkar ezagutzaren eta aitortzaren alde.

Zenbateko hori lortutako puntuazioaren arabera banatu da aurkeztutako 30 proiektuen artean.

Diru-laguntzen helburua da jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen artean elkar ezagutza eta aitortza bultzatzeko lanean diharduten gizarte eragileek bideratutako ekimenei eta proiektuei laguntzea.

Diruz lagundutako proiektuen asmoa da kultur aniztasuna, gizarte kohesioa eta elkarbizitza baketsua hedatzeko, sentsibilizatzeko, aintzat hartzeko eta defendatzeko jarduerak aurrera eramatea.

.Ikerketa proiektua

Aurten lehenengo aldiz lerro berri bat sortu da, ikerketa proiekturako, proiektu bakarra aurkeztu dute

. Badihardugu deba ibarreko euskera elkartia finantziatu da
101 L ; Donostiako Hizkuntza Aniztasuna (Ikerketa proiektua)

Zuzeneko diru-laguntzak

Diru laguntza zuzena 3 elkarteei banatu zaie, 3 proiektu finantziazteko.

- . Gipuzkoako SOS.arrazakeria elkarteari; "Urretxindorra" proiektua finantziazteko
- . Zaporeak solidarios Garapenerako elkarteari; "Jantzi Negua-Neguko Arropa Bilketa", Greziara (Lesbos eta Quíosera) proiektua finantziazteko
- . Kamelamos Adiquerar elkarteari; "Donostiako Kante Flamenkoaren XVII. Flamenko/XVII Concurso de Cante Flamenco. Ekimena finantziazteko.